



Hizkuntza erabileraren neurketa


Beldurrezko eta Fantasiazko Zinema
Astea

Hizkuntzaren azterketaren emaitzen ondorio eta
balorazio txostena

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarte
2013/11/01

Ahozkoan eta film luzeetan erabilitako hizkuntzari dagokionean iazko kopuruan mantendu dira euskaraz azpidatzita edota bikoiztutako filmetan. Aurten, sail ofizialeko 22 filmetatik 5 izan dira euskaraz (iazko kopuru bera), beste 6 film euskaraz azpidatziak "Cannon Films" Zikloan (iaz Universal & Victoria Eugenia Antzokia 100 urte sailean kopuru bera) eta haurrentzako film luzea euskaraz bikoiztua izan da eta laburra euskarara azpidatzia izan da. Film laburrei dagokienez ere, sail ofizialean lehiaketan parte hartutako filma guztiak euskaraz azpidatziak izan dira. Film labur espainiarrei dagokienez ez da euskararen presentziarik izan. Animazio film laburren sail ofizialean eta Okendo Kultur Etxean proiektatu diren 4 pelikuletatik ez da bakarria ere euskaraz izan.

Aurtengo Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinema Astean beraz, iazkoarekin alderatua, ez da aldaketa nabarmenik eman behean ikusten dugun grafikoak adierazten duen bezala.



Zinema Asteko egunez eguneko filmen aurkezpenei dagokienez, aurkezpen gehienetan euskararen presentzia bermatu den arren (aurkezpen askotan oso urria izan da) ondoren gaztelera gailendu da nabarmen. Euskarazko interbentzioak oso txikiak izan baitira.

Ekitaldi nagusietan, Inaugurazio eta Amaierako ekitaldietan, hasierako ongi etorri eta sarrera ele bitan egin bada ere, ondoren gaztelera egin da.

Urtero egiten den mozorro lehiaketan epaimahaikide, lehiakide zein aurkezlearen arteko elkarriketak gaztelera izan dira baita laburmetraien lehiaketan ere.

Antolatutako bi ikastaroak ere gaztelera hutsez eskaini zituzten.

Azkenik, prentsurrekoei dagokionez, gaztelera gailendu da nabarmen, euskara hasierako agur eta hurrengo eguneko egitarauaren azalpena mugatzen baita (hala nola, kartel ofizialaren aurkezpen prentsurrekoan, erakusketen aurkezpenetan zein filmetako aurkezpen prentsurrekoetan). Filmen prentsurrekoen kasuan gainera, gonbidatuek euskara zein gaztelera ez den beste hizkuntza erabili duenean itzulpena gaztelarrera egin da beti.

Idatzizko materialari dagokionez, antolakuntzak kaleratzen duen materialean elebitasuna mantentzen da (katalogo ofizialan, programazio liburuxkan, programazio taulan, prentsarako dossierretan, etab ...). Aurten gainera, programazio liburuxkan filmen testu laburrak aldatu egin dira, ez dira katalogo ofizialan agertzen diren testuak eta irakurterrazagoak dira.

Web orrian ere, informazioa guztia euskaraz irakur daiteke baina urteroko hiru hutsune mantentzen dira oraindik: web orriaren helbidea bera (www.donostiakultura.com/terror/2013), harremanetarako helbidea (Donostia Kultura, Teatro Victoria Eugenia, Reina Regente 8, 4ª 20003 Donostia) eta Donostia 216 lotura (gaztelera azko loturara eramaten zaitu).

Sare sozialetan, Beldurrezko eta Fantasiako Zinema asteko facebookean antolakuntzatik bi hizkuntzak erabili dira, Nekrogunekoan aldiz, gaztelera da orokorrean erabili den hizkuntza (bai facebookean zein twitterren).

Erakusketei dagokionez, erakusketen kanpoko pankarta handietan zein barruko informazio panel eta argazki oinetan elebitasuna bermatu da.

Azterketa orokorrean ikusita, idatzizko material eta euskarrietan elebitasuna mantentzen den bitartean, ahozko erabileran ez da hori gertatzen.

Beraz, BAGERAK ondokoa proposatzen dio Zinema Asteko antolakuntzari:

Filmei dagokionez, alde batetik, Asteazken zehar euskaraz azpidatuta proiektatzen diren filma kopurua ez dela nahikoa deritzogu (%38,23a) eta bestetik, BAGERA Elkartek uste du, euskara Zinema Astearen barruan normaltasunez Antzoki Zaharreko emanaldietan ere erabiltzea eta ez bakarrik, Victoria Eugenia antzokiko euskaldunontzako aparteko emanaldietarako.

Hau da, BAGERAK, Antzoki Zaharreko film emanaldietan ere euskarazko azpigituluak jartzea, filmen aurretik izaten diren ekitaldi, aurkezpen zein lehiaketetan elebitasuna mantentzea eta ekintzei dagokionez, euskara ere bermatzea proposatzen du.